



## **Europar Batasunaren etorkizuneko Kohesio Politikari buruzko lan-jardunaldia**

Martxoaren 14an Europar Batasunaren 2014-2020 aldirako Kohesio Politika berriari buruzko lan-jardunaldi bat egin da Gasteizen, Goiuri Jauregian. Jardunaldia Batzordeko Regio Zuzendaritza Nagusiko (Eskualde Politika) Diego Villalba jaunak egindako azalpen bitan oinarrituta garatu da, besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen jarraipena egiteko ardura duela Villalba jaunak.

Goizaren lehenengo zatian Europar Batasunaren Kohesio Politika berriaren planteamendu orokorrak gaur egun duen egoera azaldu eta eztabaidatu da, hau da: gaur egun eztabaidan dauden baliabide ekonomikoak eta horien eskualde-motaren araberrako banaketa, etorkizuneko Kohesio Politikaren helburu orokorrak eta gaikako helburuak, Erki-degoko Funtsen baterako finantzaketaren eraginkortasuna eta etekina bilatzea, etab.

Bigarren zatian Batzordean zenbait gairen inguruan izandako berritasunak aztertuta dira, hau da: Erkidegoko funts guztien jokaerak eraenduko dituzten printzipioak, jardueretako kontzentrazioa, programazio-prozesu berria (Europar Batasunaren Esparru Estrategiko Bateratua  $\rightarrow$  Estatu kide bakoitzarekin egindako atxikimendu-kontratuak  $\rightarrow$  Programa Eragileak), eraginkortasuna neurtzeko betekizun berriak, baldintzazkotasunak betetzea, eta programa eragileen etorkizuneko kudeaketaren inguruko berritasunak.

Hainbat erakundetako 40 kargu publiko eta teknikari inguru egon dira bileran, besteak beste Eusko Jaurlaritzako sailak eta sozietate publikoak, hiru foru-aldundiak eta beste-lako erakunde publikoak eta I+Gren garapena kudeatzeko erakundeak (EUDEL, Emakunde, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, IK4, etab.) ordezkatzuz.

Jardunaldiaren helburua izan da etorkizuneko Kohesio Politikari buruzko informazioa izatea, eguneratuta eta Europar Batasuneko eztabaidaren egungo egoerari buruzko Batzordearen Zerbitzuak (Batzordea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, etab.) zuzenean emandakoa. Halaber, konfigurazio orokorrean eta etorkizuneko programa eragileen bitartez Europako eskualde-politikako aplikazioan ziurrenik berritasunak izango direnak ere aurkeztu nahi izan dira. Hori guztia, Euskal Autonomia Erki-degoan etorkizunean aplikatuko diren programa eragileak prestatzeko asmoz.

2012ko martxoak 15